


ezagutzen al  
duzu Donostia?

# Egiluze



Egiluze baserria. Donostiako Udaletxetik urrutien dagoena.

Donostiako Udalbarrutiko lurretan, Egiluze (Euluxe) da mandabaldeagora dagoen baserria. Donostiar baserritarren artean, Igeldoko herriari dagokion etxe hau, beti kontsideratu da ia munduaren bukaeran zegoela, oso urruti, itsasoko harkaitzetan ia aurkitu ez dezakegun paraje batean. 1863. urtean egin zen Gipuzkoako etxe zerrendan agertzen da Egiluze baserria Udaletxetik 10,4 kilometro-ra! dagoela. Datu hauek garbi adierazten dutenez aipatu zerrenda honetan Donostiako ia 700 baserrietatik urrutien dagoena. Horrexegatik urruntasunak ematen dio bere ospea eta misterioa Egiluzeri. Kontatzen da etxe honetan bizitzera sartzen ziren baserritarrak joan egiten zirela ahal zuteanean eta honela ez omen da inoiz hil inor bertan. Jende gaztea eta neka ezina bizitzeko egina zela dirudi! Hain



Izko-barrutia eta Lezkako erreka (Donostia-Igeldo eta Oriu arteko muga). Eskuinera, Zakarro (Donostia). Ezkerrera, Larreaundi (Oriu).

dira latzak eta traketsak harkaitzategi haiek, ezen Zakarro izenarekin ezagutzen diren. Honelaxe esan zidan behin batean Ibaetako aitona batek: «*Euluxen (Egiluzen) ahuntzak ere ez dira ibiltzen xuxen!*». Honelako paraje bakarti batean ugariak dira donostiar gehienentzat ezezagunak diren leku ederrak. Hauek baitira hain zuzen ere Donostiako Udalbarrutiko

kostaldean aurkitu ditzakegun alderdirik basatienak. Leku hauetan neketsua gertatzen da ibiltzea (garoa, otea eta zakarrez josiak baitaude inguru hauek) baina ausartzen dena ez da damutuko. Hemen dastatuko baitu -batez ere itsasoa gaizto baldin badago- gure kostaldeko naturaren edertasuna.

ARGAZKIA ETA TESTUA: JOSU TELLABIDE

## La Casa del Café

- Juan Iriondo S.A. -  
DONOSTIA

